

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **234/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, Europako Estatistikako Aholku Komitea sortzen duena eta Kontseiluaren 91/116/EEE Erabakia indargabetzen duena**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:
«*DECISIÓN N° 234/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se crea el Comité consultivo europeo de estadística y por la que se deroga la Decisión 91/116/CEE del Consejo*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 73 de 15/03/2008)»

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO
ERABAKIAK

**234/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA,**

2008ko martxoaren 11koa,

**Europako Estatistikako Aholku Komitea sortzen duena eta Kontseiluaren
91/116/EEE Erabakia indargabetzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatu eta, bereziki, haren 285.
artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena² aztertu dute,
Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ostean,
Tratatuaren³ 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Estatistika-informazioa erabiltzen eta sortzen dutenak eta inkestatuak kontsultatzea oinarritzat da Erkidegoko estatistika-informazioari buruzko politika prestatzeko eta garatzeko.
- (2) Ekonomia- eta gizarte-arloetako estatistika-informazioarako Europako Aholku Komiteak —Kontseiluaren 91/116/EEE Erabakiaren⁴ bidez sortu zen—, estatistika-informazioari buruzko erkidegoko politikaren helburuak koordinatzen laguntzen die, gaur egun, Kontseiluari eta Batzordeari. Horretarako, erabiltzaileen beharrak eta informazioaren hornitzaile eta sortzaileen kargura diren kostuak hartzen ditu kontuan.

- (3) Ekonomia- eta gizarte-arloetako estatistika-informazioarako Europako Aholku Komiteak baliagarria dela erakutsi du, baina erkidegoan gertatu diren aldaketak direla-eta (batik bat 27 estatu kideetara zabaldu denetik), beharrezkoa da Komite horren zeregina, mandatuak, osaera eta prozedurak aldatzea. Argitasuna lortze aldera, egungo Komitea aldatzea komeni da, eta, haren ordean, beste Estatistikako aholku-komite bat (Komitea) jartzea.

- (4) Komiteak programa planifikatzeko prozesuan lankidetzat estua ahalbidetu behar du, Europako Ekonomia Sistemaren gobernantza hobetzeko, eta erkidegoko estatistiken kalitatea handitzen lagundu behar du. Horretarako, ezinbestekoa da Komite hauekin lankidetzat estua izatea: Kontseiluaren 89/382/EEE Euratom Erabakiak sortutako Ekonomia Programaren Komitearekin⁵ eta Kontseiluaren 91/115/EEE Erabakiak sortutako Monetaren, Finantzen eta Ordainketa-balantzaren Komitearekin⁶.

- (5) Oreka lortu beharra dago, batetik, kide kopurua murriztearen —Komiteak herrialde gehiago izango dituen erkidegoan eraginkortasunez lan egin dezan— eta, bestetik, erkidegoko estatistiketan interesa duten alderdi guztiei ordezkaritza emateko premiarekin artean, Kontseiluak 2005eko azaroaren 8ko ondorioetan eskatzen zuen moduan.

- (6) Erkidegoko estatistika-beharren abantailak eta kostuak hobeto ebaluatzeko eta orekatzeko helburuak lortze aldera, eta erkidegoko legediaren karga berrorekatu eta txikitzeko —eta gero eta eskari handiagoari aurre egin ahal izateko—, Komiteak zeregin handiagoa izan behar du erkidegoko estatistika-programa prestatzen eta aplikatzen.

² C 97 EO, 2007-04-28koa, 1. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko urriaren 24koa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 14koa.

⁴ L 59 EO, 1991-03-06koa, 21. or. Erabaki hori 97/225/EE Erabakiak —L 102 EO, 1997-04-19koa, 32. or.— aldatu zuen.

⁵ L 181 EO, 1989-06-28koa, 47. or.

⁶ L 59 EO, 1991-03-06koa, 19. or. Erabaki hori 2006/856/EE Erabakiak —L 332 EO, 2006-11-30koa, 21. or.— aldatu zuen.

(7) Komiteak, erabiltzaileek, inkestatuek eta estatistika-informazioaren sortzaileek estatistika-informazioaren erkidego-politikaren helburuei buruz dituzten iritziak jasotzeko balio behar du.

(8) Horren ondorioz, bidezkoa da 91/116/EEE Erabakia indargabetzea.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Europako Estatistikako Aholku Komitea

1. Europako Estatistikako Aholku Komitea (hemendik aurrera, Komitea) sortu da.

2. Komiteak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari lagunduko die, eta erabiltzaileen beharrak eta informazioaren hornitzaile eta sortzaileen kostuak aintzat hartuko direla bermatuko du, erkidegoko estatistika-informazioaren inguruko politikaren helburu eta lehentasun estrategikoak koordinatzean.

3. Zerbitzu horrek erkidegoko estatistika-informazioaren inguruko politikari buruzko estatistika-esparru guztiak estaliko ditu.

2. artikulua

Zeregina

1. Batzordeak Komiteari eskatuko dio aholkua, erkidegoko estatistika-programa prestatzeko prozesuko hasierako fasean. Komiteak honako hauei buruzko irizpena emango du:

a) erkidegoko estatistika-programak Europaren integrazioaren eta garapenaren inguruan duen garrantziaz, erkidegoko erakundeek, nazio- eta eskualde-agintariak, ekonomia- eta gizarte-sektoreek eta zientzia-esparruek adierazitakoaren arabera:

b) erkidegoko estatistika-programak erkidegoaren jardueretarako duen garrantziaz, bilakaera ekonomikoa, soziala eta teknikoa kontuan hartuta;

c) erkidegoko estatistika-programako arloen, Batzordearen urteko estatistikako lan-programaren eta estatistika-lanen lehentasunak aldatzeko aukeraren arteko orekaz, lehentasun eta baliabideei dagokienez;

d) erkidegoko estatistika-programa aplikatzeko beharrezkoak diren baliabideen egokitasunaz —erkidegoak eta agintari nazionalak zuzenean dituzten kostuak barne hartzen ditu— eta erkidegoko estatistiken esparruaren, doitasun mailaren eta kostuen egokitasunaz, erabiltzaileen premiak aintzat hartuta;

e) informazioaren hornitzaileek estatistika-datuak egiteko kostuez eta erantzunaren karga txikitzeko aukerez, bereziki, enpresa txikien eta ertainen karga txikitzeko aukerez;

2. Horrez gain, estatistika-jarduera berriak zer alorretan garatu behar diren ere adieraziko dio Komiteak Batzordeari, eta erkidegoko estatistikek erabiltzaileentzat duten garrantzia hobetzeko moduari buruzko aholkua emango dio, informazioaren hornitzaile eta ekoizleen kargurako kostuak kontuan hartuta.

3. artikulua

Erkidegoko erakundeekiko eta beste organismo batzuekiko harremanak

1. Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak eskatuta, Komiteak irizpena egingo du, erabiltzaileen beharrei buruz eta datu-hornitzaileek estatistika-informazioaren erkidegoko politika garatzean, erkidegoko estatistika-programaren lehentasunetan, estatistiken ebaluazioan, datuen kalitatean eta hedapen-politikan bere gain hartutako kostuei buruz.

2. Bere zeregina egiteko beharrezkotzat jotzen duenean, Komiteak irizpenak eman eta txostenak aurkeztuko dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari, erabiltzaileen beharrei buruz eta hornitzaileek erkidegoko estatistikak sortzean eta hedatzean aurre egin beharreko kostuei buruz.

Urtero, Komitearen irizpenetan adierazitakoari nola jarraitu dion emango du jakitera Batzordeak.

3. Bere lana egiteko, Estatistika Programaren Komitearekin eta Monetaren, Finantzen eta Ordainketa-balantzaren Komitearekin arituko da lankidetzan Komitea. Aldizka, 2. artikuluan deskribatutako zereginekin lotutako irizpenen berri emango die bi Komite horiei, eta artikulua honetako 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako irizpenak eta txostenak bidaliko dizkie.

4. Komitea harremanetan egongo da estatistika-erabiltzaileen kontseilu nazionalekin.

4. artikulua

Osaera eta izendapen-prozedura

1. Komiteak 24 kide izango ditu:
 - a) Batzordeak, Europako Parlamentuarekin eta Kontseiluarekin kontsultatu ostean, hamabi kide izendatuko ditu. Beregaintasunez jokatu dute. Hamabi kide horiek izendatu ahal izateko, estatu kide bakoitzak estatistikaren alorrean eskarmentu handia duten hiru hautagairen izenak emango dizkio Batzordeari. Batzordeak ahaleginak egingo ditu, hamabi kide horiek erkidegoko estatistiken erabiltzaileak, inkestatuak eta beste alderdi interesdun batzuk (zientzia-komunitatea, gizarte-solaskideak eta gizarte zibila) bidezkitasunez ordezkatu ditzaten. Hamabi kide horiek nork bere aldetik beteko dituzte beren zereginak.
 - b) Hamaika kide erakundeek eta organismoek izendatuko dituzte, zuzenean, beren kideen artean:
 - i) Kide batek Europako Parlamentua ordezkatu du.
 - ii) Kide batek Kontseilua ordezkatu du.
 - iii) Kide batek Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea ordezkatu du.
 - iv) Kide batek Eskualdeetako Komitea ordezkatu du.
 - v) Kide batek Europako Banku Zentrala ordezkatu du.
 - vi) Bi kidek Estatistika Programaren Komitea ordezkatu dute.
 - vii) Kide batek Europako Enpresen Konfederazioa ordezkatu du.
 - viii) Kide batek Europako Sindikatuen Konfederazioa (Businessseurope) ordezkatu du.
 - ix) Kide batek Europako Eskulangileen eta Enpresa Txiki eta Ertainen Batasuna ordezkatu du.
 - x) Datuak Babesteko Europako Gainbegiralea.
 - c) Eurostateko zuzendari nagusia Komiteko ofiziozko kidea izango da, baina ez du boto-eskubiderik izango.
2. Komiteko kideen zerrenda *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da, C seriean.

5. artikulua

Agintaldiaren iraupena

1. Komiteko kideak bost urterako izendatuko dira, eta, gehienez ere, bigarren aldiz berriro ahal izango zaie kargua. Agintaldia amaitutakoan, kideek bitarteko-izaeraz jarraituko dute postuan, kide berriek ordezkatu arte edo agintaldia berriro arte.
2. Kideren batek agintaldia amaitu aurretik dimitituz gero, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera izendatutako beste kide batek ordezkatu du.

6. artikulua

Egitura eta funtzionamendua

1. Komiteak, Batzordeak izendatutako kideen artean aukeratuko du lehendakaria. Lehendakaria bost urterako izendatuko da, eta, gehienez ere, bigarren aldiz berriro ahal izango zaio kargua.
2. Lehendakariak urtean behin deituko du Komitea gutxienez, alegia beraren erabakiz edo gutxienez kideen herenak eskatuta.
3. Konplexutasun handiko estatistika-gaiei buruzko irizpenak prestatzeko, aldi baterako lan-taldeak eratu ahal izango ditu Komiteak, Batzordearekin ados jarrita. Komiteko kide bat izango da lan-talde bakoitzeko burua. Adituek osatuko dituzte lan-taldeak, eta beharrezkoa izango da aditu horien lanbide-esperientziaren eta jatorri geografikoaren artean oreka egokia egotea. Lan-talde horietako lehendakariak Komitearen bilera batean aurkeztuko dute emaitzei buruzko txostena.
4. Bere zereginak betetzeko, ikerketak agindu eta mintegiak antolatu ahal izango ditu Komiteak.
5. Batzordeko zerbitzuetako ordezkariak Komitearen nahiz lan-taldeen bileretan behatzaile gisa parte hartzeko aukera dute, beren zerbitzuak aztergai badira, betiere.

Komiteko lehendakariak Komitearen bileretan parte hartzeko baimena eman ahal izango die beste behatzaile batzuei.
6. Batzordea Komiteko eta lan-taldeetako idazkaritza-zerbitzuez arduratuko da.
7. Komitearen gastuak Batzordearen aurreikuspenen egoera-orrrian adieraziko dira.

7. artikulua

Erabakiak hartzeko prozedurak

Komitearen barne-erregelamenduak zehatz-mehatz azalduko du erabakiak hartzeko prozedurak zein diren.

8. artikulua

Konfidentziasuna

Tratatuaren 287. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Komiteko kideek ezin izango dute Komitearen edo lan-taldeen lanen bidez lortutako informazioa zabaldu, baldin eta Batzordeak jakinarazten badie informazio hori konfidentziala dela edo txosten-eskaera bati edo egindako galdera bati erantzuteak informazio konfidentzial hori zabaltzea dakarrela.

9. artikulua

Barne-araudia

Komiteak Batzordeari kontsultatu ondoren onartuko du bere barne-araudia. Gero, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari bidaliko die, haren berri izan dezaten.

10. artikulua

Indargabetzea

91/116/EEE Erabakia indargabetu da.

11. artikulua

Indarrean sartzea

2008ko ekainaren 15ean sartuko da indarrean Erabaki hau.

Estrasburgon eginga, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

J. LENARČIČ